



AZALPEN-GIDA, ERAKUSTEKO NOLA ERABILI DEIALDIEN EREDUAK, HONAKO HAUETAN: DEIALDIAK, LANPOSTU HUTSAK BETE DAITEZEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZKO LEKUALDATZEAREN BITARTEZ, BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU BEREZETAN

Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak gida labur hau egin du, toki-erakundeek tresna bat izan dezaten, lagungarri izan dakien deialdien ereduak erabiltzeko, honako hauetan: deialdiak, lanpostu hutsak bete daitezten merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu berezietan.

1.- Nahitaezkoa da, ereduak erabiltzeko, toki-erakundeak erabaki bat hartzea 19/2022 Foru Legeari atxikitzeko.

Ereduen abiapuntu nahitaezkoa da toki-erakundeek bere egitea epeak murrizteko eta izapideak sinplifikatzeko neurriak, uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean jasotakoak (Nafarroako Foru Komunitateko Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuak prestatu ditu ereduak). Hala, nahitaezkoa da (zeren haietan jasotzen baita epeak murriztea eta izapideak sinplifikatzea, hala aurreikusia baitago uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean) toki-erakundeak erabaki bat hartzea, atxikitzeko (ez bada aurretik atxiki) uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 10. artikuluari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

2.- Azalpen praktikoa, erakusteko nola erabili deialdiaren ereduak.

Ereduek osoki erabiltzeko, funtsezkoa da zuzen interpretatzea deialdiaren ereduetako 1.3 oinarria:

“1.3. Prozedurak homogeneousatzeko, onesten dira (ebazpen honekin batera) lehiaketako lanpostu adina ezaugarri espezifikoan taula, lekualdatze-lehiaketan (l. eranskina).

Adibide praktiko bat: demagun Euntzetxikiko Udalak hiru lekualdatze-lehiaketa egin behar dituela: bat administrariantzat (7 lanpostu), beste bat arkitektoentzat (2 lanpostu), eta beste bat zerbitzu anitzetako enplegatuentzat (3 lanpostu).

Beraz, Euntzetxikiko Udalak hiru lanpostutarako lekualdatze-lehiaketak izapidetu beharko ditu: bat administrariantzat, beste bat arkitektoentzat, eta beste bat zerbitzu anitzetako enplegatuentzat.

Hala, honela jokatu beharko luke:

1. Euntzetxikiko Udaleko **alkateak ebazpen bakarra(*) eman beharko du**, zeinaren bidez onetsiko baita deialdi bat, lanpostu hutsak bete daitezten merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez; hain zuzen ere, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuetan eskainitako lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

() Zero dokumentua / Euntzetxikiko Udalaren web-orrian argitaratuko da.*

2. Euntzetxikiko Udalak **deialdi bakarra(*) onetsiko du**, lanpostu hutsak bete daitezten merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez; hain zuzen ere, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuetan eskainitako lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

(*) 1 dokumentua / Argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Euntzetxikiko Udalaren web-orrian.

3. Euntzetxikiko Udalak, deialdia onestearekin batera, **I. eranskinaren(*) hiru ale onetsiko eta argitaratuko** ditu. Goiburu hau izanen dute: “Ezaugarrien taula, honako honetan: deialdia, lanpostu hutsak bete daitezen merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez; hain zuzen ere, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuetan eskainitako lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–)”.

(*) 2 dokumentua / Argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Euntzetxikiko Udalaren web-orrian.

- *eranskina*, administrarien lanpostuetarako. Ezaugarrien taula bakoitzean zehazten dira lanpostu bakoitzaren berezitasunak. Bat lanaldi erdikoa izan daiteke, besteak profil elebiduna izan dezake, etab.
- *eranskina*, arkitektoen lanpostuetarako.
- *eranskina*, zerbitzu anitzetako enplegatuen lanpostuetarako.

4. Gero, lekualdatze-lehiaketa bakoitzak bere bidea egingen du, eta haien administrazio-egintza bakoitza eman eta argitaratu beharko da. Gerta daiteke arkitektoen eta administrarien lehiaketetara eskabiderik ez aurkeztea ezarritako epean. Halakoetan, alkateak ebazpen bakarra emanen du, bi lehiaketak eman gabe utzi direla deklaratzeko, eta gero, argitalpen bakarra egingen du Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta toki-erakundearen web-orrian.

3. Zer egintza argitaratu behar diren lekualdatze-lehiaketaren prozeduran

Agiri zenbakia.	Izena.	NAOn argitaratzea.	Toki-erakundearen web-orrian argitaratzea.
0	<i>Alkatetzaren ebazpena, deialdia onesten duena.</i>	<i>EZ</i>	<i>BAI</i>
1	<i>Deialdia</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>
2	<i>I. eranskina.-Ezaugarrien taula.</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>
3	<i>II. eranskina. Parte hartzeko eskaera-eredua.</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>
4.	<i>Lanpostuak adjudikatzeko ebazpena</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>
4 bis.	<i>Ebazpena, lehiaketako lanpostua eman gabe utzi dela deklaratzeko</i>	<i>EZ</i>	<i>BAI</i>
4. ter.	<i>Lekualdatze-lehiaketako lanpostua eman gabe uzteko iragarkia</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>
5.	<i>Taula: lanpostu hutsen adjudikazioa.</i>	<i>BAI</i>	<i>BAI</i>

(* Lehiaketako lanpostuak eman gabe uzten badira (4bis eta 4 ter), prozedura bukatu egingen da, eta, beraz, ez da ebazpenik argitaratu behariko lanpostuak adjudikatzeko (4), ezta lanpostu hutsak adjudikatzeko taula ere (4).

4. Lekualdatze-lehiaketaren prozedurako izapideen zerrenda.

Izapide zenbakia.	Egintzak.	NAOn argitaratzea.	Toki-erakundearen web-orrian argitaratzea.
1.	<i>Alkatetzaren ebazpena, deialdia onesten duena.</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai.</i>

2.	<i>Deialdia eta bi eranskinak.</i>	<i>Bai</i>	<i>Bai</i>
3.	<i>Interesdunek izenematea telematikoki egitea.</i>		
4.	<i>Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren onespena/ Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, organo eskudunak administrazio-egintza bat emanen du, deklaratzeko lehiaketako lanpostua hutsik gelditu dela. Hala, prozedurari bukaera emanen litzaioke.</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai.</i>
5.	<i>Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendaren onespena.</i>	<i>Ez.</i>	<i>Bai</i>
6.	<i>Lehiatzaile guztien merezimenduen kalifikazioa</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai.</i>
7.	<i>5 egun baliouduneko epea, zerrenda horiek argitaratzen direnetik, bidezko alegazioak aurkezteko.</i>		
8.	<i>Merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratzea.</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai</i>
9.	<i>Parte-hartzaileen esku jartzea aukeratzeko dauden lanpostuen zerrenda.</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai</i>
10.	<i>Parte-hartzaileek telematika bidez</i>		

	<i>aukeratuko dute lanpostua, 5 egun naturaleko epean, baremoaren behin betiko emaitza argitaratu eta biharamunetik aurrera.</i>		
11.	<i>Organo deitzaileak puntuazio ordenari eta ezarri diren gainerako irizpideei jarraikiz egingen du lanpostuak hautatzeko eta adjudikatzeko egintza.</i>		<i>Bai</i>
12.	<i>Lehiatzaileei lanpostuak adjudikatzea, aukeratutako lanpostu hutsen arabera, eta lanean hasteko egun bera ezartzea parte-hartzaile guztientzat</i>	<i>Bai</i>	<i>Bai</i>